

ELIPSIK

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Urriak 17 / Azaroak 8 eta 29
17 de octubre / 8 y 29 de noviembre

'Elipsiak', Isabel de Naveránek komisariatutako Arte Eszenikoen zikloaren hirugarren edizioan, Estatuko eta nazioarteko artisten pieza koreografikoak aurkeztu, eta ikusleei zabalduko elkarrizketak eta hitzaldiak izango dira. 2016. urtean abiatu zenetik 'Elipsiak' zikloak ikuspegi kontzeptual berezia du ardatz, erakutsi nahi baitu nola lantzen diren hainbat gai dantzaren arlotik: arte eta pentsamendu kritiko garaikidearen berezko interesekin gurutzatzen direnak eta haien berri ematen dutenak. Elipsiaren erretorika erabiliz, zikloak hauteman nahi ditu garai, ingurune sozial eta geografia desberdinetan garatutako gorputz-tekniken artean dauden lotuneak. Horrela, espazio bat ireki nahi du, iragankorra denak irauteko duen gaitasunaz, gorputz-transmisioaz, ahozkototasunaz eta transferentzia fisikoaren eta presentziaren ideiez hausnartzeko.

Edizio honetan berriz, aurrekoetan zehaztutako ardatzei jarraipena eman, eta gehiago zabalduko dira, hain zuzen, zer berreskuratu behar den gorputzen historiatik, dantzaren historiatik eta aurreko une historikokoak izan arren orainaldira bultzatzeko ikuspegi berraztertu ahal diren irudi eta artelanetatik.

Isabel de Naverán ikertzaile independentea eta Museo Reina Sofíako dantza aholkularia da. Arte bizietan hezitua, koreografian ari da lanean, diskurtso kritikoaren sorkuntzan. 2010ean Leire Vergara, Beatriz Cavia eta Miren Jaiorekin batera 'Bulegoa zenbaki barik' sortu zuen, Bilbon kokatutako arte eta ezagutza bulego bat.

'Elipsiak', el ciclo de Artes Escénicas comisariado por Isabel de Naverán, presenta en su tercera edición piezas coreográficas de artistas estatales e internacionales y ofrece conversaciones y coloquios abiertos al público. Desde su inicio en 2016, 'Elipsiak' se rige por un enfoque conceptual específico que busca mostrar cómo desde el hacer de la danza se abordan cuestiones que informan y se cruzan con intereses propios del arte y del pensamiento crítico contemporáneo. Utilizando la figura retórica de la elipsis, el ciclo trata de detectar zonas de conexión entre técnicas corporales desarrolladas en distintas épocas, contextos sociales y geografías, para abrir un espacio en el que reflexionar en torno a la capacidad de permanencia de lo efímero, a la transmisión corporal, a la oralidad y a las ideas de transferencia física y de presencia.

Esta edición continúa y amplía los ejes marcados en su recorrido en torno a qué merece ser rescatado de la historia de los cuerpos, de la historia de la danza y de aquellas figuras y obras que, pese a pertenecer a momentos históricos previos, pueden ser revisadas bajo la óptica de una instigación al presente.

Isabel de Naverán es investigadora independiente y asesora de danza del Museo Reina Sofía. Formada en artes visuales, trabaja en y desde la coreografía, en la generación de discurso crítico. Desde 2010, dirige, junto a Leire Vergara, Beatriz Cavia y Miren Jaio, 'Bulegoa zenbaki barik', una oficina de arte y conocimiento ubicada en Bilbao.

ELIPSIK ARTE ESZENIKOEN ZIKLOA CICLO DE ARTES ESCÉNICAS

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Gaur Hoy:

AIMAR PÉREZ GALÍ

A post-believe manifesto: Delta & Accumulating

Laster Próximamente:

OLA MACIEJEWSKA

Loie Fuller: Research

Osteguna, azaroak 8 de noviembre, jueves

NAZARIO DÍAZ

Háblame cuerpo (Looking for Pepe)

Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves

AIMAR PÉREZ GALÍ

A post-believe manifesto: Delta & Accumulating



A Post Believe Manifesto New Yorkeko Judson Dance Theatre kolektiboko koreografo postmodernoen konposizio metodologiak berrikusten dituen programa bikoitza da, eta beste diziplina batzuekin elkarriketan jartzen ditu, hala nola musikarekin eta arte bisualekin.

Delta, 70eko hamarkadako Lucinda Childs, Sol LeWitt eta antzeko sortzaile minimalisten ildoari jarraitzen dion partitura koreografikoa da. Kalkulu geometrikoen eta matematikoen bidez, zain egotearen inguruan jolasten da, eta gorentasuna gogora ekartzen duen erritual bat gauzatzen.

Accumulating soinu, argi eta mugimenduen metaketa bat da, eta erritual garaikidea proposatzen du, clubbing kulturaren eta minimalismo koreografikoaren artean. 70eko hamarkadaren hasierako Trisha Brown New Yorkeko koreografoaren *Accumulation Pieces* haietan eta Detroiteko technoaren hastapenetan oinarrituta, beren diziplina artistikoe-tan paradigma-aldaketa bideratu zuten metodologia horiek berrikustea proposatzen du lan honek.

A Post Believe Manifesto es un programa doble que revisa las metodologías compositivas de las coreógrafas posmodernas del colectivo Judson Dance Theater de Nueva York, poniéndolas en diálogo con otras disciplinas como la música y las artes visuales.

Delta es una partitura coreográfica que sigue la estela de creadoras y creadores minimalistas de los años 70 como Lucinda Childs o Sol LeWitt. Mediante cálculos geométricos y matemáticos se juega con la expectativa y se establece un ritual que evoca lo sublime.

Accumulating es una acumulación de sonido, luz y movimiento que propone un ritual contemporáneo a caballo entre la cultura de clubbing y el minimalismo coreográfico. Basada en las *Accumulation Pieces* de la coreógrafa neoyorquina Trisha Brown de inicios de los 70 y en los orígenes del techno en Detroit, este trabajo propone una revisión de estas metodologías que propiciaron un cambio de paradigma en sus disciplinas artísticas.

FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA:

Kontzeptua eta zuzendaritza Concepto y dirección: **Aimar Pérez Galí**



Koreografia eta interpretazioa Coreografía e interpretación: **Aimar Pérez Galí, Carme Torrent, Clara Tena**
Management eta ekoizpena Producción y management: **Aimar Pérez Galí / ANTES**

Laguntzaileak Con el apoyo de: **Festival Sálmon - Mercat de les Flors (Barcelona), Graner Centre de Creació (Barcelona), Kunstcentrum BUDA (Kortrijk, Bélgica), Secció Irregular - Mercat de les Flors (Barcelona), Fàbrica de creació Fabra & Coats (Barcelona) y Espacio Práctico (Barcelona)**

AIMAR PÉREZ GALÍ

Dantzaren eta zuzeneko arteen esparruan garatzen du praktika artistikoa, dantzari, koreografo, ikerlari, pedagogo eta idazle moduan. Dantza garaikidea ikasi zuen Amsterdamgo Arteen Goi Eskolan (Holanda), eta Teoria kritikoko eta ikasketa museologikoetako masterra egin du Bartzelonako Arte Garaikideko Museoko (MACBA) eta Bartzelonako Unibertsitat Autonomako (UAB) Ikasketa Independenteen programan. Espacio Práctico-ko sortzaile-kide eta zuzendari da 2010az geroztik. Bartzelonako Institut del Teatreko Dantzaren Goi Kontserbatorioko irakaslea da 2014tik, eta iEncarna! irakurle-taldea koordinatzen du era kolektiboan MACBA 2017an hasi zirenetik. Haren azken lanen artean nabarmenenak dira *_è p i c a_*, *The Touching Community* edo *Sudando el discurso: una crítica encuerpada*; azken horren izen bereko argitalpenak Arts Libris 2016 saria irabazi zuen.

Desarrolla su práctica artística en el campo de la danza y las artes en vivo como bailarín, coreógrafo, investigador, pedagogo y escritor. Estudió danza contemporánea en la Escuela Superior de Artes de Amsterdam (Holanda) y ha cursado el Máster en teoría crítica y estudios museológicos en el Programa de Estudios Independientes del Museo de Arte Contemporáneo de Barcelona (MACBA) y la Unibersitat Autònoma de Barcelona (UAB). Es co-fundador y director de Espacio Práctico desde 2010. Profesor en el Conservatorio Superior de Danza del Institut del Teatre de Barcelona desde 2014 y coordina colectivamente el grupo de lectura iEncarna! en el MACBA desde 2017. Entre sus últimos trabajos destacan *_è p i c a_*, *The Touching Community* o *Sudando el discurso: una crítica encuerpada*, cuya publicación homónima ha recibido el Premio Arts Libris 2016.



Asteazkena, urriak 17 de octubre, miércoles
AIMAR PÉREZ GALÍ. *A post-believe manifesto: Delta & Accumulating*



Osteguna, azaroak 8 de noviembre, jueves
OLA MACIEJEWSKA. *Loie Fuller: Research*



Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves
NAZARIO DÍAZ. *Háblame cuerpo (Looking for Pepe)*

JÓZ 2 CAC 2, 20:00

8€/6€ Az txartelarekin Con tarjeta Az: **pieza 1** pieza

15€: Elipsiak Zikloa Ciclo (**3 pieza** piezas)

Sarrerak Entradas:

Infopuntua / www.azkunazentroa.eus

ELIPSIK

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Urriak 17 / Azaroak 8 eta 29

17 de octubre / 8 y 29 de noviembre

'Elipsiak', Isabel de Naveránek komisariatutako Arte Eszenikoen zikloaren hirugarren edizioan, Estatuko eta nazioarteko artisten pieza koreografikoak aurkeztu, eta ikusleei zabalduko elkarriketak eta hitzaldiak izango dira. 2016. urtean abiatu zenetik 'Elipsiak' zikloak ikuspegi kontzeptual berezia du ardatz, erakutsi nahi baitu nola lantzen diren hainbat gai dantzaren arlotik: arte eta pentsamendu kritiko garaikidearen berezko interesekin gurutzatzen direnak eta haien berri ematen dutenak. Elipsiaren erretorika erabiliz, zikloak hauteman nahi ditu garai, ingurune sozial eta geografia desberdinetan garatutako gorputz-tekniken artean dauden lotuneak. Horrela, espazio bat ireki nahi du, iragankorra denak irauteko duen gaitasunaz, gorputz-transmisioaz, ahozkototasunaz eta transferentzia fisikoaren eta presentziaren ideiez hausnartzeko.

Edizio honetan berriz, aurrekoetan zehaztutako ardatzei jarraipena eman, eta gehiago zabalduko dira, hain zuzen, zer berreskuratuko behar den gorputzen historiari, dantzaren historiari eta aurreko une historikokoak izan arren orainaldira bultzatzeko ikuspegi berraztertutako diren irudi eta artelanetatik.

Isabel de Naverán ikertzaile independentea eta Museo Reina Sofíako dantza aholkularia da. Arte bizietan hezitua, koreografian ari da lanean, diskurtso kritikoren sorkuntzan. 2010 eta 2018 artean 'Bulegoa zenbaki barik' arte eta ezagutza bulegoaren parte izan zen, Leire Vergara, Beatriz Cavia eta Miren Jaiorekin batera.

'Elipsiak', el ciclo de Artes Escénicas comisariado por Isabel de Naverán, presenta en su tercera edición piezas coreográficas de artistas estatales e internacionales y ofrece conversaciones y coloquios abiertos al público. Desde su inicio en 2016, 'Elipsiak' se rige por un enfoque conceptual específico que busca mostrar cómo desde el hacer de la danza se abordan cuestiones que informan y se cruzan con intereses propios del arte y del pensamiento crítico contemporáneo. Utilizando la figura retórica de la elipsis, el ciclo trata de detectar zonas de conexión entre técnicas corporales desarrolladas en distintas épocas, contextos sociales y geografías, para abrir un espacio en el que reflexionar en torno a la capacidad de permanencia de lo efímero, a la transmisión corporal, a la oralidad y a las ideas de transferencia física y de presencia.

Esta edición continúa y amplía los ejes marcados en su recorrido en torno a qué merece ser rescatado de la historia de los cuerpos, de la historia de la danza y de aquellas figuras y obras que, pese a pertenecer a momentos históricos previos, pueden ser revisadas bajo la óptica de una instigación al presente.

Isabel de Naverán es investigadora independiente y asesora de danza del Museo Reina Sofía. Formada en artes visuales, trabaja en y desde la coreografía, en la generación de discurso crítico. Entre 2010 y 2018 formó parte, junto a Leire Vergara, Beatriz Cavia y Miren Jaio, de 'Bulegoa zenbaki barik', una oficina de arte y conocimiento.

ELIPSIK

ARTE ESZENIKOEN ZIKLOA CICLO DE ARTES ESCÉNICAS

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Gaur Hoy:

OLA MACIEJEWSKA

Loie Fuller: Research

Laster Próximamente:

NAZARIO DÍAZ

Háblame cuerpo (Looking for Pepe)

Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves

OLA MACIEJEWSKA

Loie Fuller: Research

Iraupena Duración: 40'
Solasaldia piezaren ondoren
 Coloquio posterior a la pieza



Loie Fuller: Research lanean, Ola Maciejewska koreografoak kritikoki bereganatu du Loie Fuller-ek (Illinois, 1862-Paris, 1928) asmatu zuen 'soineko dantzaria'; dantzako artisten artean modernismoko berritzaileenetako eta ezagunenetako bat izan zen hura.

Loie Fuller: Research jolasean dabil etengabe eraldatzen diren formak eta egoerak antolatzen. Ikusleen aurrean zabaltzen den ariketa-segida bat da, eskultorikoa (soinekoa) eta hura zizelkatzen duen pertsona harremanetan jartzen dituen. Ez du gauzekiko harreman fisikoa indartu nahi; harreman hori ikusgarri bihurtzen duten formak bideratu nahi ditu ordea. Forma jasotzen duen materiaren mugimendua estimulatzeko gorputz-praktika bat da, giza gorputzaren eta objektuaren arteko harremanaren emaitza gisa azalertzatzen den mugimendua: 'soineko dantzaria'.

En *Loie Fuller: Research*, la coreógrafa Ola Maciejewska se apropia críticamente del 'vestido danzante' inventado por Loie Fuller (Illinois, 1862-París, 1928), una de las artistas de la danza más innovadoras y reconocidas del modernismo.

Loie Fuller: Research juega a organizar formas y estados en constante transformación. Consiste en una sucesión de ejercicios que se despliegan ante el público, poniendo en relación lo escultórico (el vestido) con la persona que lo esculpe. No busca reforzar la relación física con las cosas, sino más bien facilitar formas que hagan esa relación visible. Se trata de una práctica corporal para estimular el movimiento de la materia que recibe la forma, un movimiento que emerge como resultado de la relación entre el cuerpo humano y el objeto: el 'vestido danzante'.

FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA:

Sorkuntza Concepción: **Ola Maciejewska**

Kolaborazio artistikoa Colaboración artística: **Judith Schoneveld**

Enkargupean Por encargo de: **TENT Rotterdam (Holanda)**

Babesarekin Con el apoyo de: **Zeebelt Theatre (Holanda)**


Premiere: **TENT, Rotterdam (NL), 2011**

Iraupena Duración: **40 min**

OLA MACIEJEWSKA

Polonian jaioa den eta Parisen bizi den koreografa honek, 2012an Utrechtoko Unibertsitateko Antzerki Garaikide eta Dantzako masterra eskuratu zuen. Zenbait ikerketa akademiko egiteaz gain, Maciejewskak hauek egin ditu: *Loie Fuller: Research* (2011) pieza, Frantzia, Suitza, Kanadan, Polonian, Holandan edo Portugalen aurkeztua, eta *Bombyx Mory* (2015), Pariseko Les Inaccoutumés Jaialdiaren barruan La Menagerie de Verre-n estreinatua eta, besteak beste, Bruselako Kaaitheatre, Oportoko Museo Serralves etaartzelona Mercat de les Flors espazioetan eta testuinguruetan gauzatua. 2016tik 2018ra Normandiako Caengo Zentro Koreografiko Nazionalari (Frantzia) lotutako artista izan da. *Dance Concert* izeneko haren lan berria Taiwango Taichung Teatro Nazionalen estreinatua da, eta 2018ko udazkenean Parisko Pompidou Zentroan erakutsiko da, Udazkeneko Jaialdiaren barruan.

Nacida en Polonia y residente en París, la coreógrafa obtiene en 2012 el máster en Teatro Contemporáneo y Danza de la Universidad de Utrecht. Además de varias investigaciones académicas, Maciejewska ha realizado las piezas *Loie Fuller: Research* (2011), presentada en Francia, Suiza, Canadá, Polonia, Holanda o Portugal, y *Bombyx Mory* (2015) estrenada en La Menagerie de Verre en París, en el marco del Festival Les Inaccoutumés, y realizada también en espacios y contextos como Kaaitheatre en Bruselas, Museo Serralves en Oporto o Mercat de les Flors en Barcelona, entre otros. De 2016 a 2018 figura como artista asociada al Centro Coreográfico Nacional de Caen en Normandía (Francia). Su nuevo trabajo, *Dance Concert* se ha estrenado recientemente en el Teatro Nacional Taichung de Taiwán y en otoño de 2018 se mostrará en el Centro Pompidou de París en el marco del Festival de Otoño.



Asteazkena, urriak 17 de octubre, miércoles
AIMAR PÉREZ GALÍ. *A post-believe manifesto: Delta & Accumulating*



Osteguna, azaroak 8 de noviembre, jueves
OLA MACIEJEWSKA. *Loie Fuller: Research*



Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves
NAZARIO DÍAZ. *Háblame cuerpo (Looking for Pepe)*

JOZ 2 CAC 2, 20:00

8€ / 6€ Az txartelarekin Con tarjeta Az: **pieza 1** pieza

15€: Elipsiak Zikloa Ciclo (**3 pieza** piezas)

Sarrerak Entradas:

Infopuntua / www.azkunazentroa.eus

ELIPSIK

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Urriak 17 / Azaroak 8 eta 29

17 de octubre / 8 y 29 de noviembre

'Elipsiak', Isabel de Naveránek komisariatutako Arte Eszenikoen zikloaren hirugarren edizioan, Estatuko eta nazioarteko artisten pieza koreografikoak aurkeztu, eta ikusleei zabalduko elkarrizketak eta hitzaldiak izango dira. 2016. urtean abiatu zenetik 'Elipsiak' zikloak ikuspegi kontzeptual berezia du ardatz, erakutsi nahi baitu nola lantzen diren hainbat gai dantzaren arlotik: arte eta pentsamendu kritiko garaikidearen berezko interesekin gurutzatzen direnak eta haien berri ematen dutenak. Elipsiaren erretorika erabiliz, zikloak hauteman nahi ditu garai, ingurune sozial eta geografia desberdinetan garatutako gorputz-tekniken artean dauden lotuneak. Horrela, espazio bat ireki nahi du, iragankorra denak irauteko duen gaitasunaz, gorputz-transmisioaz, ahozkototasunaz eta transferentzia fisikoaren eta presentziaren ideiez hausnartzeko.

Edizio honetan berriz, aurrekoetan zehaztutako ardatzei jarraipena eman, eta gehiago zabalduko dira, hain zuzen, zer berreskuratu behar den gorputzen historiari, dantzaren historiari eta aurreko une historikokoak izan arren orainaldira bultzatzeko ikuspegi berraztertu ahal diren irudi eta artelanetatik.

Isabel de Naverán ikertzaile independentea eta Museo Reina Sofíako dantza aholkularia da. Arte bizietan hezitua, koreografian ari da lanean, diskurtso kritikoaren sorkuntzan. 2010 eta 2018 artean 'Bulegoa zenbaki barik' arte eta ezagutza bulegoaren parte izan zen, Leire Vergara, Beatriz Cavia eta Miren Jaiorekin batera.

'Elipsiak', el ciclo de Artes Escénicas comisariado por Isabel de Naverán, presenta en su tercera edición piezas coreográficas de artistas estatales e internacionales y ofrece conversaciones y coloquios abiertos al público. Desde su inicio en 2016, 'Elipsiak' se rige por un enfoque conceptual específico que busca mostrar cómo desde el hacer de la danza se abordan cuestiones que informan y se cruzan con intereses propios del arte y del pensamiento crítico contemporáneo. Utilizando la figura retórica de la elipsis, el ciclo trata de detectar zonas de conexión entre técnicas corporales desarrolladas en distintas épocas, contextos sociales y geografías, para abrir un espacio en el que reflexionar en torno a la capacidad de permanencia de lo efímero, a la transmisión corporal, a la oralidad y a las ideas de transferencia física y de presencia.

Esta edición continúa y amplía los ejes marcados en su recorrido en torno a qué merece ser rescatado de la historia de los cuerpos, de la historia de la danza y de aquellas figuras y obras que, pese a pertenecer a momentos históricos previos, pueden ser revisadas bajo la óptica de una instigación al presente.

Isabel de Naverán es investigadora independiente y asesora de danza del Museo Reina Sofía. Formada en artes visuales, trabaja en y desde la coreografía, en la generación de discurso crítico. Entre 2010 y 2018 formó parte, junto a Leire Vergara, Beatriz Cavia y Miren Jaio, de 'Bulegoa zenbaki barik', una oficina de arte y conocimiento.

ELIPSIK

ARTE ESZENIKOEN ZIKLOA CICLO DE ARTES ESCÉNICAS

Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán

Gaur Hoy:


NAZARIO DÍAZ

Háblame, cuerpo (Looking for Pepe)

NAZARIO DÍAZ

Háblame, cuerpo (Looking for Pepe)

Iraupena Duración: 50'
Solasaldia piezaren ondoren
Coloquio posterior a la pieza



Háblame, cuerpo Nazario Díazek 2016an hasitako *Looking for Pepe* azterlanaren zati bat da. *Looking for Pepe* Pepe Espaliú (1955-1993) Kordobako artistaren figuratik abiatzen da, eta gorputza, hizkuntza eta lurraldearen inguruko ikerketa-sorta bat zabaltzen du.

Háblame, cuerpo lanean, Nazario Díaz interpretearen toki klasikoan kokatzen da, bere gorputzez presentziaren egoera eta kalitate desberdinen barruan bizitzeko ahaleginean. Espaliúren inguruan eta haren obraren eta zirkunstantziaren –gaixotasunaren eraginpean, eraldatze betean zen une sozial eta politikoan– arteko loturak garatu zituen moduaren inguruko ikerketak lana inspiratu du aldatzen doan edo desagertzen den materiaren eta izate fisiko eta sozial gisa ulertutako gorputzaren higadura eta euste ideiez. «Nire ahozko jarioaren eraldatze fonetiko, izaera zirkularraren ideien edo errepikatzearen bidez ezabatzeko ideia eta antzeko alderdiak lotzen dituen erresistentzia-ekintza bat proposatzen dut, eta hizkuntzarekin eta oszilazio geografiko eta identitariorako nolabaiteko borondatearekin talka egiten kokatzen dut nire gorputza» (Nazario Díaz).

Háblame, cuerpo es parte de *Looking for Pepe*, un estudio iniciado por Nazario Díaz en 2016. *Looking for Pepe* parte de la figura del artista cordobés Pepe Espaliú (1955-1993) para desplegar una serie de investigaciones en torno al cuerpo, al lenguaje y al territorio.

En *Háblame, cuerpo* Nazario Díaz se sitúa en el lugar clásico del intérprete que, con su cuerpo, trata de habitar distintos estados y calidades de presencia. El estudio en torno a Espaliú y a cómo él desarrolló vínculos entre su obra y su circunstancia, marcada por la enfermedad, en un momento social y político en plena transformación, inspira un trabajo en torno a la materia que muta o desaparece, y a la idea de desgaste y de sujeción de un cuerpo entendido como existencia física y social. Nazario Díaz propone, según sus palabras, «un acto de resistencia que vincula aspectos como la transformación fonética de mi flujo vocal, la noción de circularidad o la idea del borrado a través de la insistencia; colocando mi cuerpo en colisión con el lenguaje y con cierta voluntad de oscilación geográfica e identitaria».

FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA:


Sorkuntza eta interpretazioa: Nazario Díaz Jorge Gallardorekin kolaborazioan eta eta Jesús Alcaiderek inelkarrizketan

Creación e interpretación: Nazario Díaz en colaboración con Jorge Gallardo y en conversaciones con Jesús Alcaide

NAZARIO DÍAZ

Nazario Díazek (Linares, Jaén) garatutako lan eszenikoak gorputza, begirada eta idazketa kontzeptuak ditu ardatz. 'Vértebro' kolektiboaren partaide da, Juan Diego Calzada eta Ángela Lópezekin batera, eta haiekin komisiaritzen du *Beautiful Movers* jaialdia Kordoban. Madrilgo Reina Sofía museoa Arteak antolatutako Praktika eszenikoa eta Ikusmen kulturaren masterretik igaro izanak testuinguru kritikoa eskaini zion *Looking for Pepe* proiektua garatzeko; presentzia eta erresistentzia ideien inguruko alde aurreko interesak biltzen ditu. Interprete moduan, Isaak Erdoizarekin eta Societat Doctor Alonsorekin lan egin izan du, besteak beste.

Nazario Díaz (Linares, Jaén) desarrolla un trabajo escénico centrado en los conceptos de cuerpo, mirada y escritura. Forma parte del colectivo 'Vértebro' junto a Juan Diego Calzada y Ángela López, con quienes comisaría en Córdoba el festival *Beautiful Movers*. Su paso por el Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual organizado por Artea en el Museo Reina Sofía de Madrid, le permite un contexto crítico en el que desarrollar el proyecto *Looking for Pepe*, que reúne intereses previos en torno a las ideas de presencia y resistencia. Como intérprete ha trabajado, entre otros, junto a Isaak Erdoiza y la Societat Doctor Alonso.



Asteazkena, urriak 17 de octubre, miércoles
AIMAR PÉREZ GALÍ. A post-believe manifesto: Delta & Accumulating



Osteguna, azaroak 8 de noviembre, jueves
OLA MACIEJWSKA. Loie Fuller: Research



Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves
NAZARIO DÍAZ. Háblame, cuerpo (Looking for Pepe)

J0Z 2 CAC 2, 20:00

8€ / 6€ Az txartelarekin Con tarjeta Az: pieza 1 pieza

15€: Elipsiak Zikloa Ciclo (3 pieza piezas)

Sarrerak Entradas:

Infopuntua / www.azkunazentroa.eus